

**IRAKASKUNTZA-GIDA**

2013/14

**Ikastegia**

160 - Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskola

**Zikl.**

Zehaztugabea

**Plana**

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

**Ikastaroa**

4. maila

**IRAKASGAIA**

25954 - Hezkuntza Gainbegiratzea eta Etika Profesionala

**ECTS kredituak:** 6

**GAITASUNAK / AZALPENA / HELBURUAK**

Hezkuntza gainbegiraketa prozesuek, Gizarte Langintzan graduatua diren pertsonen osoko garapena laguntzen dute, euren gaitasun kognitiboak, emozionalak eta estrategikoak hobetuz. Laguntza lanbideek, lanbide sozio-psiko-sanitariak deiturikoak ere, pertsonen zainketa eta arreta garatzen dute, eta laguntza aurrera eramaten duen profesionala dute baliabide nagusizat. Lan honetarako ezagutza tekniko profesionalak baino gehiago behar da. Profesional hauek, ezagutza teoriko-metodologikoak izateaz gain, nahita ez, euren gaitasun pertsonalak eta erlazionalak garatu beharko dituzte. Hau beharrezkotzat joko da, atenditzen duten pertsonen gaixotasuna eta bazterkeria gainditu ahal izateko. Gainbegiraketa trebakuntza jarraitua da, hausnarketarako gunea sortuz, non praktikari buruz pentsatu daiteke, zailtasunak, ikastaldirako aukerak eta eremu profesionala integratzeko. Ikasgai honek akonpainamendua, hausnarketa eta ikasketa dinamikoa du helburu, praktika eremuan sortzen diren ezagutzaren analisia eta hausnarketatik abiatuz.

**AURRE BALDINTZAK:** Ondorengo ikasgaiak gaindituak izatea

- Gizarte baliabideen behatokia.
- Gizarte errealitateen behatokia.
- Jardute profesionalerako sarrera

\*Hezkuntza gainbegiratzea eta etika profesionala eta Kanpoko praktikak: practicuma ikasgaiak aldi berean ikasi beharko dira.

**GAITASUNAK**

1. Bakoitzaren lana modu eraginkor batez kudeatu, lehentasunak markatuz, gizarte ardurak betez eta gizarte esku-hartzearen emaitzen jarraitua eginez.
2. Gizarte esku-hartzearen dilema etikoak identifikatu eta ulertu, Gizarte Langintzaren balioak, printzipio etikoak eta kode deontologikoak aplikatuz.
3. Pentsamendu kritiko-kreatiboa garatu, ohiko pentsaeraren kontrako arrazonamendu alternatiboen ildoak, ematen den denboraren barruan, zabalduz.
4. Gizarte Langintza eta Gizarte Zerbitzuen berezkoak diren ezagutza teorikoak, metodologikoak, teknikoak eta instrumentalak ezagutu eta aplikatu.
5. Pertsonak, familiak, taldeak, erakundeak eta komunitateekin elkarri eragin eta harreman profesional positiboak sortzeko beharrezko trebetasunak garatu.
6. Gizarte ikerketak eta jardute profesionalak ematen duten informazioa aztertu, diziplina anitzeko ezagutzak eta praktika profesionala hobetzeko estrategia bezala.
7. Gizarte errealitatea, gizarte baliabideak eta gizarte langileekin harremanetik abiatuz, jardute profesionalean sorturiko esperientzia sistematizatu.
8. Ahoz eta idatziz konklusioak adierazi, aurrean dagoen entzuleriari modu egituratu eta egoki baten helaraziz.

**GAITASUN ESPEZIFIKOAK**

1. Gizarte langintzari buruz hausnartu, esku-hartze profesionala garatu den eta garatzen ari den testuinguru historikoak, sozialak eta politikoak kontuan hartuz.
2. Gizarte langintzaren oinarriak definitu, diziplina eta lanbidea den heinean, haren objektua eta helburuak identifikatuz.
3. Gizarte langintzaren prozesu metodologikoa garatu, esku-hartze profesionalaren prozesua eta prozedura ulertuz.
4. Garatu beharrezko funtzioak identifikatu, gizarte langileen esku-hartzea kritikoki baloratuz strategi profesionalak hobetzeko asmoarekin.
5. Gizarte langintzaren espezifikotasuna eta diziplina anitzeko garrantzia esparru partekatuan ulertu.
6. Kritikak egiteko gaitasuna garatu, jardute profesionalean sortzen diren gatazka, dilema eta arazo etikoei aurre egiten.

**ZEHARKAKO GAITASUNA**

Azterketa eta sintesia, argudio eta proposamenen ekoizpena eta defentsaren gaitasuna bultzatu, beharrak, gatazkak eta arazoak kudeatu ahal izateko.

Menderatze maila: 3

Argudio eta proposamenetan balioak eta usteak identifikatzen ditu, harremanetan ipintzen ditu, eta egoera profesional eta konplexuetan behar, gatazka eta arazoen aurrean erantzun kreatiboak kudeatzen ditu.

## GAI ZERRENDA

Saioen gaien gida hauxe izango da:

1. Ezagutza teorikoak eta ezagutza praktikoak: euren arteko harremana.
2. Ikerketa eta jardute profesionalaren sistematizazioa.
3. Gizarte Langintzaren metodologia, teknikak eta tresnak: aplikazioa.
4. Gizarte langilearen funtzioak eta rola. Bestelako profil profesionalekiko elementu komunak eta berezizaileak.
5. Etika, balioak eta deontologia gizarte langintzan. Gizarte langileen kode deontologikoa. Dilema eta arazo etikoak.
6. Esku-hartze profesionalaren oinarriko estrategiak: entzute-aktiboa, enpatia, asertibitatea eta gatazken kudeaketa.

Honetaz gain, banakako zein taldekako gainbegiraketan jardute profesionalarekin zerikusia duten gaiak landuko dira, honako ardatzak kontutan izanik:

1. Ardatz epistemologikoa: Analisiaren sistemen ezagutzen eraikuntza eta berreraikuntza.
2. Testuingurua/Instituzioaren Ardatza: gizarte auzia, erakundearen sistemaren harremana bere egitura komunikatiboa, erlazioala eta botere gaiekin.
3. Ardatz tekniko/metodologikoa.
4. Pertsonaren barruko ardatza: Ikasle bakoitzaren estiloari buruz, bere gaitasunak, eta hobekuntza bideak.
5. Ardatz ideologikoa &#8211; gizarte auziaren analisisa, jarrera hartzea sistema guztiaz gurutzatuz.
6. Ardatz etikoa edo balioena.

## IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak		60							
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.		90							

### Legenda:

M: Maistrala      S: Mintegia      GA: Gelako p.      GL: Laborategiko p.      GO: Ordenagailuko p.  
GCL: P. klinikoak      TA: Tailerra      TI: Tailer Ind.      GCA: Landa p.

### Argibideak:

Ikasgai honen irakaskuntza mota mintegia da. Mintegiek ikasle multzo txiki bat eta irakaslearen arteko harreman azkarra bultzatzen dute. Mintegia lanak aurkeztu, kasuak aztertu, balizko egoerak eta arazoei aurre egiteko erabiliko da. Gainbegiraketa trebakuntza jarraitua da, elementu epistemologikoak eta metodologikoen hausnarketarako sistema izanik, non auto zainketa profesionala ematen da. Azken honek, hausnarketa, praktikari buruz, ikasketa-trebakuntzaren zailtasunei buruz, eta lan munduan integrazteko gaiei buruz laguntzen du.

Mintegiak, metodologia bezala, ikaslearen ebaluaketa ahalbideratzen du, eta auto ikastaldiaren garapena ezagutzeko ere laguntzen du.

30 gainbegiraketa saio izango dira ikasturte osoan. Taldeko saioak, 50 min.+50 min., egitura honekin:

1. Azaltzen diren derrigorrezko artikulua edo bibliografiaren banakako aurreko irakurketa, gainbegiraketa den egoera objektua hausnartzeko.
2. Saio bakoitzean ikasle bakoitzak kolaboratzen ari den instituzioaren kasu praktiko bat azalduko du, bere hausnarketa eta berreraikuntzarako (banakako, taldeko, familiako zein komunitateko ekintzak).
3. Taldeak behatu, aktiboki entzun eta galderak egiten ditu, egoeraren hizlariak argitu, handitu edo gehiago zehazteko.
4. Bi erritu izango dira amaitzeko: batetik, banaka irakurritako artikulua eta azalduko du egoerarekin lotu beharko da. Eta bestetik, hizlariak bere etxera zer eramaten duen azalduko du, lanean jarraitzeko eta bere ekintzak hobetzeko. Bestelako trebakuntza ekintzak: Saioen erregistroa eta hausnarketa teoriko-praktikoak.

## EBALUAZIOA

- Garatu beharreko azterketa idatzia
- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak)
- Banakako lanak
- Taldeko lanak
- Lanen, irakurketen... aurkezpena

### Argibideak:

- Talde eta proiektuen ekoizpena eta aurkezpena, banaka zein taldeka.
- Behaketa eta erregistro sistemak: asistentzia, partaidetza ekintzetan, kasu eta errealitate profesionalaren simulazioa (rol-jokuak).
- Ikasleen partaidetza bultzatzen duten teknikak: auto ebaluaketa, berdinen arteko ebaluaketa.

## IKASKETA-EMAITZAK

Ikaslea gaia da:

- Bakoitzaren balioak eta jarrerak, lanbidearen arau etikoak eta kode deontologikoak jarraituz, identifikatu eta berraztertzen ditu.
- Gizarte esku-hartzearen dilema etikoak identifikatzen ditu eta gizarte langintzaren printzipio deontologikoak aplikatzen ditu.
- Gizarte langintzaren berezkoak diren metodologiak, teknikak eta tresnak aplikatzen ditu.
- Entzute aktiboa, enpatia eta asertibitaterako oinarrizko trebetasunak azaltzen ditu.
- Ezagutza teorikoak eta praktikoak harremanetan ipintzen ditu eta eremu teorikoa etengabe berraztertzen du.
- Funtzio eta rol profesionalari buruz hausnartzen du, beste profil profesionalekin partekatzen eta bereizten diren elementuak identifikatuz.
- Teoria eta ereduetan oinarrituz, egoera praktikoei aurre egiten die, kontzeptuak eta hipotesiak berreraikitzen.
- Erraztasun, azkartasun, argitasun eta modu ulerker baten ahoz adierazteko gai da.
- Ahozko edo idatzizko aurkezpenak bere terminologia eta edukietan modu argi, egituratua eta ulerkerrean egiten ditu.
- Esku-hartze objektuen egoerak aztertu eta hausnartzen ditu, dauden aukerak eta zailtasunak identifikatzen, gainbegiraketa saioen jorratzen diren ardatzekin harremanetan ipintzen.

Ebaluaketa jarraitua:

Saioen lanaren koadernoak: egindako ekintzak, presentziala eta ez presentzialak, dagokion azken hausnarketarekin (banakako erregistroa). Ebaluaketa eta auto ebaluaketa (2. Eranskina)

Asistentziarik gabeko azken ebaluaketa: Frogak

Kasu praktikoaren aurkezpena, irakaskuntza gidan azaldutako moduan - % 50

Idatzizko froga ( Ikasgaiaren gai guztiei buruz) - % 50

## NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Moodle Plataforman eskegitako artikuluak.

- ARIÑO ALTUNA, Miren; BERASALUZE CORREA, Ainhoa (2013): "Procesos de Supervisión en las enseñanzas del Trabajo social". XI Jornadas de Redes de Investigación en Docencia Universitaria 2013. Retos de futuro en la enseñanza superior: Docencia e investigación para alcanzar la excelencia académica. Alikante, uztailak 4 eta 5. <http://web.ua.es/es/ice/jornadas-redes/documentos/2013-comunicaciones-orales/331857.pdf>
- HOWE, D. (1999). Dando sentido a la práctica. Granada: Maristán.
- PUIG i Cruells, Carmina Trabajo Social y Supervisión: un encuentro necesario para el desarrollo de las competencias profesionales. [http://www.trabajosocialmalaga.org/archivos/revista\\_dts/49\\_3.pdf](http://www.trabajosocialmalaga.org/archivos/revista_dts/49_3.pdf)
- GIZARTE LANGINTZAKO KONTSEILU OROKORRA (2012): Kode deontologikoa. Gizarte Langileen Elkargo Ofizialek 2012ko ekainaren 9an egindako ezohiko bileran onartua.
- NBE (NAZIO BATUEN ERAKUNDEA) 1948. Giza eskubideen aldarrikapen unibertsala. [http://www.ivap.euskadi.net/r61-3039/eu/contenidos/informacion/legedia\\_euskaraz/eu\\_3818/adjuntos/Giza\\_Eskubideen\\_Aldarrikapen\\_Unibertsala.pdf](http://www.ivap.euskadi.net/r61-3039/eu/contenidos/informacion/legedia_euskaraz/eu_3818/adjuntos/Giza_Eskubideen_Aldarrikapen_Unibertsala.pdf)
- VISICONDE Eugenio Dimensión ética de la supervisión. <http://es.scribd.com/doc/76098580/Eugenio-Visiconde-Dimension-etica-de-la-supervision-23-11-09>

Balizko kasuen analisirako gida. Konfidentzialtasun akordioa. Gainbegiraketa saioen erregistro gida. Ebaluaketa eta auto ebaluaketa egiteko gida.

## BIBLIOGRAFIA

### Oinarrizko bibliografia

- AGUILAR, María José (1994): Introducción a la supervisión. Buenos Aires: Lumen.
- FERNÁNDEZ, Josefina (1997): La supervisión en el trabajo social. Bartzelona: Paidós.
- HERNÁNDEZ, Jesús (comp.) (2000): La Supervisión. Un sistema de asesoramiento y orientación para la formación y el trabajo. Balentzia: Nau Llibres.
- LÁZARO, Santa eta alter (2007): Aprendiendo la práctica del trabajo social. Madril: Comillas Unibertsitatea.
- MEZA, Miguel A., ROBLES, Claudio O., TONON Graciela H., (2004): La supervisión en trabajo social: una cuestión profesional y académica. Buenos Aires: Espacio.
- PASTOR, Enrique (Coord.) (2010): Supervisión y prácticas en trabajo social: organización, metodología e instrumentos para el proceso de construcción del conocimiento desde la práctica profesional. Murtzia: Murtziako Unibertsitatea.

### Gehiago sakontzeko bibliografia

- ARIJA GISBERT, Belén (1999): Apuntes para una reflexión teórico-práctica de la relación de ayuda. Cuadernos de trabajo social, ISSN 0214-0314, ISSN-e 1988-8295, 12 Zb., 1999, orr. 141-158.

<http://dialnet.unirioja.es/servlet/extart?codigo=282758>

- SÁNCHEZ CANO, Ricardo J. (2010): Supervisión en tiempos de crisis, una oportunidad para los profesionales de la relación de ayuda. Zerbitzuan: Gizarte zerbitzuetarako aldizkaria - Revista de servicios sociales, ISSN 1134-7147, 47 Zb., 2010, orr. 135-145. <http://dialnet.unirioja.es/servlet/extart?codigo=3262819>

- CARBALLEDA, Alfredo Juan Manuel (2007): Escuchar las prácticas. La supervisión como proceso de análisis de la intervención en lo social. Buenos Aires: Espacio.

- GIMÉNEZ, Víctor V.; LILLO, Asunción eta LORENZO, Josefa (2003): El proceso de supervisión de campo en el punto de mira: una investigación a tres en Trabajo Social. Alikante: Alikanteko Unibertsitatea.

- PÉREZ, José Vicente (koord.) (1999): Trabajo social, orientaciones y prácticas formativas. Valencia: Gules.

- PUIG I CRUELLS: Carmina La supervisión de los equipos de Servicios Sociales. Una oportunidad para la reflexión y el pensamiento. Cuadernos de trabajo social, ISSN 0214-0314, ISSN-e 1988-8295, 24Zb., 2011, orr. 123-133.

<http://dialnet.unirioja.es/servlet/extart?codigo=3795806>

- PORCEL, Amparo eta VÁZQUEZ, Carmen (1995): La supervisión, espacio de aprendizaje significativo, instrumento para la gestión. Zaragoza: Certeza.

### **Aldizkariak**

### **Interneteko helbide interesgarriak**